

Balore-Kontuaren Kodea:

Bulegoa:

Agiri hau izenpetzen duten pertsonak legezko ahalmena aitortzen diote elkarri kontratu hau egiteko eta adostasun osoz Baloreak Zaindu eta Administrazeko kontratu hau formalizatzea erabaki dute. Kontratuak ondorengo baldintza orokor eta partikularrak izango ditu:

Parte-hartzaileak

Parte-hartzaile mota Sartze data	IFZ/IFK LEI Kod.	Izen-abizenak edo Arrazoi Soziala Helbidea	Segmentua
Gainerako parte hartzaileak (baleude) kontratuaren eranskinean adierazten dira.			

Erabilgarritasuna:

Baldintza Partikularrak

Komisioak	Mota	Minimoa	Maistasuna

Baloreen salerosketagatiko baldintza hauek gauzatzen den eragiketa bakoitzeko aplikatuko dira, bere iturburua bezeroaren agindu bakar bati baldin badagokio ere.

Lotutako Kontua:

Usufruktudunen Kontua:

BME Clearing sozietatean ireki beharreko kontu motari dagokionez, kontratu hau sinatzerakoan TITULARRAK adierazten du Segregazio Orokorreko kontu bat ala Segregazio Indibidualeko kontu bat irekitzeko aukera eman zaiola, eta horiek bereizten dituzten babes-mailen, lotutako kostuen eta gainerako inplikazioen berri eman zaiola, eta hark honako kontu hau aukeratu duela:

- Segregazio Orokorra edo Omnibus Segregazioa duen kontu bat
 Segregazio Indibidualizatua duen kontu bat

Baldintza Orokorrak

1. Kontratuaren helburua

Kontratu honek TITULARRAK dituen edo LABORAL KUTXAren bitartez eskuratu dituen titulu-formako edo kontuan ohartarazitako baloreak eta finantza-tresnak zaintzeko eta administrazio zerbitzua arautzen du, betiere baldintza partikularretan adierazitako baloreen kontu-kodearekin identifikatutako kontratu honetan sartuta badaude.

Baloreak eta finantza-tresnak gorde, zaindu eta itzultzeko berezko zerbitzuez gain, honako hauek dira kontratu honetan sartzen diren zerbitzuak:

- Zaindutako eta/edo administrazio baloreek eta finantza-tresnek sorturiko dibidendu, interes eta kupoiak kobratzea.
- Dibidendu pasiboak ordaintzea, titularrak horretarako nahikoa fondoz hornitu ondoren.
- Amortizazioa dagozkion mugaegunetan kobratzea, betiere horren ordainketa edo kitapena behar den aurrerapenez eta forman argitaratu bada, eta trukaturako tituluak jasotzea.
- Zaindutako eta/edo administrazio tituluak dagozkien eskubideak gordetzeko behar diren egintzak.
- Kontratu honen xede diren eragiketen erregistroa, kontrapartida zentala, konpentsazioa eta likidazioa eskatzea, dagokion kontrapartida zentralerako erakundeari aplikatzeko zaion araudiaren terminoetan.

2. Kontratuaren iraupena

Kontratu honek iraupen mugagabea izango du. Dena den, aldeetako edozeinek hautsi egin ahal izango du, nahi duenean, baldin eta hilabeteko aurrerapenez idatziz jakinarazten badu.

Kontratu amaituz gero, LABORAL KUTXAK kontratua hausteko unean likidatzeko zituen eragiketen komisioak eta kontratua amaitzeko unean hasitako aldiari dagozkien tarifen zati proportzionala kobratzeko eskubidea izango du soilik. Kontratuaren hausturak ez du eraginik izango abian diren eragiketetan, eta horiek aplikagarri zaizkien baldintzen arabera arautuko dira.

Kontratu honen babesean bi hilabete iragaten badira balorerik edo finantza-tresnarik gordailatu gabe, LABORAL KUTXAK ahalmena izango du kontratua bere aldetik hausteko, bezeroari alde aurretik erabakia komunikatu gabe.

Era berean, LABORAL KUTXAK ahalmena izango du kontratua bere aldetik eta berehala hausteko, bezeroak zor dizkion komisioak ordaindu ezean, kreditu-arriskua badu, kapitalak zuritzeari buruzko araudia hausten badu edo merkatu-gehiegikeriak eta erregelamenduari eta dagokion kontrapartida zentralerako erakundeari aplikatzeko zaion gainerako araudiari lotuta gehiegikeriak egiten baditu.

Kontratu LABORAL KUTXAREN edo TITULARRAREN ekimenez hautsiz gero, azken horrek gordailutatutako baloreak nora eramanez nahi dituen jakinarazi beharko du hilabete 1eko gehieneko epearen barruan, eta LABORAL KUTXAK titularraren jarraibideak zuzen betetzeko konpromisoa hartzen du.

TITULARRAK bere baloreak nora intsuldatutako diren jarraibiderik ez badu eman, LABORAL KUTXAK jarraibideak eskatu ahal izango ditu, eta horretarako idazki bat bidaliko du TITULARRAK jakinarazitako azken helbidera. Komunikazio hori egin denetik sei (6) hilabeteko epea igaro bada eta TITULARRAK ez baditu eman beharreko jarraibideak horretarako adierazitako balore-kontuak intsuldatzeko, LABORAL KUTXAK eskubidea izango du aipatu baloreak judizialki kontsignatzeko edota horiek bidezkoztat jotzen duen moduan erabiltzeko, behar den aurrerapenarekin jakinaraziz modu hori. Kontsignazio horrek ekar ditzakeen gastu guztiak TITULARRAK ordainduko ditu.

3. LABORAL KUTXAren betebeharrak

LABORAL KUTXAK honako betebeharrak onartzen ditu:

- LABORAL KUTXAK aldi behingo informazioa emango ditu TITULARRARI horren balore-kontuaren egoerari buruz, baita egindako eragiketa bakoitzaren likidazioak ere, gutxienez, honako aipamen hauek eginez: zenbatekoa, komisioak edo gastuak, horiek sorrarazi dituen kontzeptua, oinarri aplikagarria, aldia eta zergak zehatz-mehatz adierazita, baita, hala dagokionean, egindako likidazioak, exekutututako aginduak eta partzialki betetakoak ere.
Baloreen egoerari buruzko informazioa urtean behin bidaliko da idatziz egindako komunikazio baten bitartez.
- LABORAL KUTXAK berriazko informazioa emango dio TITULARRARI unean uneko azpigorailuzain izan litezkeen entitateei buruz, zazpigarren klausulan hitzartutakoaren arabera.
- Jaulkitzaileei dibidenduak, interesak, batzarretara joateko primak, amortizazioak, kapital-itzulketak eta abar kobratzea. ... Kasu horretan, balio-data sortzapen-egunaren biharamunekoak izango da, kontabilitate-ondorioetarako.
- Jaulkitzaileei harpidetza-sariak, primak, kanbio-aldaketak eta abar ordaintzea. ... Kontabilitate ondorioetarako, balio-data sortzapen-egun bera izango da.

Titularrek emandako jarraibideen arabera, harpidetza, trukaketa, saltzeko eskaintza publiko eta erosteko eskaintza publikoetara joatea, jarraibide horiek betetzeko.

- e) LABORAL KUTXAK informazioa emango dio TITULARRAri horren finantza-tresnen gainean izan lezakeen edozein berme-eskubideri edo kargari buruz, horien baldintzei buruz eta tresna horien gainean izan lezakeen edozein konpentsazio-eskubideri buruz.
- f) Kontratu honetan hitzartutako edo indarrean dagoen legeriak ezarritako gainerako betebeharrak.

4. Titularren betebeharrak

TITULARRAK honako betebeharrak ditu:

- a) Baldintza partikularretan ageri den kontu atxikian egiten diren aginduei erantzuteko nahikoa saldo izatea. Kontu horretan islatuko dira zaindutako balore eta finantza-tresnei dagozkien ordainketa eta kobrantza guztiak.
- b) Baloreak gordailatzeko eta administrazio kontratu honen iruzurrezko erabilerririk ez egitea. Ezarritako komisioak ordaintzea, hamabigarren klausulan ezarritakoaren arabera.
- c) Kontratu honetan jasotako edo indarrean dagoen legediak agindutako gainerako betebeharrak.

Kapitalak Zuritzeari eta Terrorismoa Finantzatzeari Aurrea hartzeko indarrean dagoen legedia betez, LABORAL KUTXAK nortasuna egiaztatzeko eskatu ahal izango dio TITULARRAri eta, hala dagokionean, titular errealei, baita haien jardura ekonomikoari buruzko informazioa eta haien ondarearen edo kontratu honek xede dituen eragiketetan erabilitako fondoan jatorria argitzeko dokumentazioa ere.

5. Titulartasuna

Balore-kontua pertsona fisiko edo juridiko bakar baten edo hainbaten izenean ireki daiteke. Balore-kontuaren titulartasuna tituluen titulartasun juridikoarena da.

Titulartasuna hainbat pertsona fisiko edo juridikorena denean, baldintza partikularretan solidarioki edo era mankomunatuan diharduten adierazi beharko da. Dena den, horretaz ezer hitzartu ez bada, solidarioki dihardutela ulertuko da.

Titularren artean solidaritatea hitzartzen bada, ulertuko da titular kide guztiek elkarri ahalmena eman diotela, baita autokontratazioaren kasuan ere, edozeinek gainerakoen ordezkartzen kontratu honek ematen dituen eskubide guztiak erabiltzeko eta kontratu honi jarraiki gordailaturiko baloreak eskuratu, administratu eta erabiltzeko.

Titular solidarioen artean agindu kontraesankorrak daudenean, LABORAL KUTXAK ez die erantzungo harik eta titularkide guztiak transakzio estrajudizialez edo auzitegien epai bidez bat etorri arte.

Titularretako edozeinek eraginik gabe utzi ahal izango du, bere sinaduraren bitartez, elkarrekiko ahalordetzea kontu bereizgabeetan, eta kontu horiek mankomunatuak izango dira aurrerantzean. Kontu mankomunatu bat kontu bereizgabe bihurtzeko, esku hartzen duten guztien baimena beharrezkoa izango da.

6. Baimenak

Balore-kontuaren titularrak edo titularrek pertsona bati edo gehiagori eman diezaiokete —bakoitzak bere kabuz kontuaren diru-erabilera solidarioa bada, edo denon adostasunez mankomunatuaz izanez gero— kontratu honen izaera errespetatuz egin daitezkeen bankako eragiketa mota guztiak egiteko baimena. Ildo beretik, kontu honetan baimendu bat edo gehiago sartzeak era berean ekarriko du kontuaren saldo eta mugimenduei buruzko informazioa eta horien egiaztagirak eskura ditzaketela.

Baimenduei nahiz ahaldunei emandako fakultateak indarrean hasiko dira Laboral Kutxari aditzera emanda bezalaxe, ezeztapeneko, ukapeneko edo aldaketarako komunikazio fidagarriak jasotzen ez den bitartean. Titularretako edozeinek izendapen hori ezeztatu dezake, kontuaren diru-erabilerraren erregimena edozein izanik ere.

7. Azpigoardailuzainak

TITULARRAK berriaz onartu du LABORAL KUTXAK beste erakunde batzuei eman diezaikeela TITULARRAren izenean dauden banakako kontuetako baloreak eta finantza tresnak gordailatzeko eta administrazio ardura. Kasu horretan, LABORAL KUTXA baloreak zaintzearen erantzule izango da TITULARRAren aurrean bere kontuetan gordailatuta baleude bezala, eta alde zuzeneko informazioa emango dio entitate azpigoardailuzainari buruz eta horren kreditu-kalitateari buruz, baita, hala dagokionean, entitate-aldaketari buruz ere.

LABORAL KUTXAren edo hirugarren erakunde baten izenean irekitako kontu globalak (omnibus kontuak) erabiltzea eskatzen duten balore eta finantza-tresnak direnean, titularrek berriazko baimena emango diote LABORAL KUTXAri horrelako kontuak haien izenean irekitzeko. Dena den, LABORAL KUTXAK barne-erregistroak izango ditu uneoro, kontu globaletan gordailatuta dauden TITULARRAren baloreen, finantza-tresnen eta uneko eragiketen egoera uneoro eta atzerapenik gabe ezagutzeko.

LABORAL KUTXAK honako baldintza hauek hartuko ditu kontuan entitate azpigoardailuzainak aukeratzeko:

- a) Balore-merkatuan ospe, esperientzia eta kaudimen frogatuak dituzten entitateak izatea.
- b) Aukeraturiko entitateen ezaugarria indarrean dagoen legedia eta balore-merkatuko jardunbide egokiak betetzea izatea.
- c) Entitateen egoitza soziala baloreak eta finantza-tresnak edukitzea eta zaintzea ikuskatzeko araudia duten lurraldeetan izatea.
- d) Erreferentzia-merkatuetan zaintza-bolumen handiak izatea.

Nolanahi ere, kontu globalek arriskua hauek izan ditzaketela jakinarazten zaio TITULARRAri:

- a) Lege-arriskuak: horien artean azpimarratzekoak dira araudi aplikagarria eta TITULARRAren eskubideak parekatzeko gatazka-arriskua eta bitartekariren batek egin litzakeen iruzurrezko jarduketak.

- b) Eragiketa-arriskuak: zaintza-entitateen katean hainbat bitartekari izateak eragindakoak.
- c) Zaintza-arriskuak: baloreak eta finantza-tresnak TITULARRAREN izenean ez daudenez, titulartasun erreala dagokion bitartekariak kontua estaltzeko adina titulu izatearen menpe dago.
- d) Bitartekaritza-arriskuak: kontu globalen erabilerak baloreen eta finantza-tresnen erabilgarritasuna aldi baterako murriztea, balioa narriatzea eta eskubide eratorriak galtzea eragin ditzake.

Kontratuaren xede diren baloreak eta/edo tresnak atzerriko balore-merkatuetan negoziatzen direnean, zeinetan ohiko jarduna den agindua jaso duen erakundearen edo beste erakunde baten izenean irekitako kontu global bat (omnibus kontua) erabiltzea, titularrari jakinatzatzen zaio kontu global horien erabilerak finantza-tresnen erabilgarritasunaren aldi baterako murrizketa, balioaren narriadura edota finantza-tresnak galtzea ekar dezakeela, aipatu arriskuen ondorioz.

Agindua ematen den momentuan, LABORAL KUTXAK ondorengo informazioa emandu du:

- Kontu globalaren entitate gordailuzaina
- Entitate gordailuzainaren herrialdea
- Entitate gordailuzainaren rating-a
- Kontu globalaren titularra: CECA
- Bezeroaren eta kontu globalaren titularraren finantza tresnak banatzea: BAI/EZ

8. Merkatu erregulatu espainiarretan negoziatutako baloreekin egindako eragiketen erregistroa, kontrapartida zentrala, konpentsazioa eta likidazioa.

8.0. Balore-merkatuaren informazio operatiboa.

TITULARRAK gai horiei buruzko informazio zehatza lortu ahal izango du LABORAL KUTXAREN webgunean: <https://www.laboralkutxa.com>; eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren webgunean: <https://www.cnmv.es>.

8.1 Erregistroa:

a) Kontratu honetatik eratorritako baloreen idazpena kontuan kontabilitate-erregistro bikoitz baten bitartez eramango da. Xehetasun-erregistro bat kontratu honengatik LABORAL KUTXAN TITULARRAREN alde irekitako kontuan, eta erregistro bat Baloreen Erakunde Gordailuzain Nagusian ("Sociedad de Gestión y de los Sistemas de Registro, Compensación y Liquidación de Valores SA", "Iberclear" izenarekin ezagutzen dena, eta Bolsas y Mercados Españoles SA sozietatearen jabetzako pertsona bakarreko sozietatea dena).

b) LABORAL KUTXAN irekitako kontuak bere TITULARRARI dagokion balore-saldoa adieraziko du une oro.

LABORAL KUTXAK bezeroaren kontuan gordailututa dauden baloreak edo tresnak ezin izango ditu erabili bere kontura edo beste bezero baten kontura, eta era berean ezingo du balore-finantzaketarako akordiorik gauzatu tresna horien gainean, TITULARRAK kontratu honi Eranskin gisa gaineratuta geratuko den baimenaren bitartez alde zuzenik eta espresuki ahalmena ematen dionean salbu, eta bertan gutxienez ere honako baldintza partikular hauek bilduko dira.

- i) LABORAL KUTXAREN betebeharrak eta erantzukizunak.
- ii) Baloreak itzultzeko baldintzak eta atxikitako arriskuak.
- iii) Baimena zein eperako ematen den.
- iv) Dagozkion baloreak eta tresnak.
- v) LABORAL KUTXAK TITULARRARI baimen horren erabilerari buruzko informazioa emango diola, gutxienez ere sei hilean behin.

c) Erakunde Gordailuzain Nagusiko erregistroa LABORAL KUTXAK erakunde horretan irekita duen baina bere baloreetarako irekitako kontuaz bestelakoa den kontu baten bitartez egingo da, eta TITULARRAK bigarren erregistro horri dagokionez bi modalitatearen artean aukeratu ahal izango du:

i) LABORAL KUTXAREN bezeroei dagozkien eta bereizi gabe dauden baloreen saldoa biltzen duen kontu orokor batean (omnibus kontua) erregistratzea baloreak.

Horrelako kontu orokorren erabilerak ekar dezake baloreen erabilgarritasunean aldi baterako mugapena ezartzea, horien balioa narriatzea, baita balio horiek edota balio horietatik eratorritako eskubideak galtzea ere.

ii) LABORAL KUTXAN alde zuzenik bezeroaren izenean irekitako kontuan erregistratuta dauden baloreak eskusiboki erregistratzeko LABORAL KUTXAK Erakunde Gordailuzain Nagusian irekitako kontu indibidualizatu batean erregistratzea baloreak.

Bi aukera horietan TITULARRAK horretarako behar diren kontuak irekitzeko eta ixteko baimena ematen dio LABORAL KUTXARI.

d) TITULARRARI irekitako kontuan erregistratutako baloreak bere izenean irekitako beste kontu batera intsuldatu ahal izango ditu, kontu hori LABORAL KUTXAN bere izenean irekita edota mota horretako kontuak irekitzeko lege zuzenaren bidez dagoen beste erakunde batean irekita dagoen berdin diolarik.

Era berean titular bat baino gehiago duten kontuetara intsuldatu ahal izango dira oinordetza, legatu, dohaintza, jabetzaren desegite edo ezkontza-sozietateetatik edo horretarako gaituta dauden erakunde publikoek egindako edozein esleipenetik eratorritako jabetza-egintzen ondorioz.

8.2 Eragiketarako balore-merkatuan:

a) Kontratu honen esparruan egindako balore-aginduetatik eratorritako balore-merkatu erregulatu espainiarrean egindako eragiketarako egon daitezke lehen mailako merkatuari lotuta, baloreen jaulkitzailearekin, hala zuzenean nola jaulkitzaileari kolokazio-zerbitzua ematen dion enpresaren bitartez; edo

Caja Laboral Popular Coop. de Crédito, J.M. Arizmendiarieta pas. z/g, 20.500 Arrasate. Gipuzkoako Merkataritza Erregistroa, 2253 liburukia, 0 liburua, 65 orria, SS-31616 orrialdean. IFZ: F-75076935. Espainiako Bankuaren Erakunde Erregistro Ofizialean dago erregistratuta, 3035 zenbakiarekin, eta Espainiako Bankuak (Alcalá 48 – 28014 Madrid/España- www.bde.es) eta Espainiako Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak (Paseo de la Castellana, 19-28046 Madrid/España www.cnmv.es) ikuskatzen dute. Azken erakunde hori da, bereziki, kontratu honen xedeari lotuta kutxa ikuskatzen duen agintaritza..

bestela, bigarren mailako merkatuari lotuta egon daitezke. Azken horiek Kontrapartida Zentraleko Erakunde baten bitartez (aurrerantzean BME Clearing SAU) egiten dira, eta erakunde horren bitartez egingo da errenta aldakorreko bigarren mailako merkatu antolatu espainiarretan baloreekin egindako eragiketen beharrezko erregistroa, kontrapartida zentrala, konpentsazioa eta likidazioa.

BME Clearing SAUren erregelamendua, erakunde horretako eragiketetan TITULARRAK dituen eskubideak eta betebeharrak definitzen dituena, TITULARRAREN eskura dago web.bme clearing.es webgunean, eta bere edukia, baita BME Clearingek onartutako Baldintza Orokorren, Zirkularren eta Instrukzioen edukia ere, kontratu honetatik eratorritako eragiketei aplikatuko behar zaie.

b) LABORAL KUTXA kontratu honen indarrez ahalmentuta geratzen da TITULARRAREN kontura bere posizio guztiak itxi ahal izateko TITULARRARI bere kontuan erregistratutako eragiketen ondorioz dagozkion betebeharrakoren bat ez badu betetzen, edota BME Clearing SA sozietatearen Erregelamenduan ezarritako ez-betetzereen bat egiten badu.

TITULARRAK, era berean, LABORAL KUTXARI ahalmena ematen dio bere betebeharrak betetzeko xedez TITULARRAREN nortasunaren eta kontratu honetan dauden datuen, kontratu honen indarrez TITULARRAREKIN egindako eragiketen, TITULARRAREN betebeharren ez-betetzeen eta BME Clearing SA sozietateak araudi hori betetzen ote den ebaluatzeko eta TITULARRARI lotutako arrisku-kontzentrazio nabarmenak zehaztu, kontrolatu eta kudeatzeko eska dezakeen gainontzeko informazio guztiaren berri eman diezaion.

9. Atzerriko merkatu antolatueta baloreekin egindako eragiketen erregistroa, kontrapartida zentrala, konpentsazioa eta likidazioa.

1º) Atzerriko merkatuetan eragiketak kontrapartida zentralako erakundetik eta gordailu zentralako erakundetik kanpo egiten dira, eta horregatik baloreak erregistratzeko beharrezkoa da erregistro-katean azpi-gordailuzainengana edo bitartekariengana jotzea.

LABORAL KUTXAK edo bere azpi-gordailuzainak kontuak ireki dituen erakundeen jurisdikzio jakin batzuetako legezko erregulazioa, era berean, erakunde horiek euren sendotasun eta esperientziaren arabera eta etengabeko ikuskapenari lotuta aukeratutako bitartekari gehiago dituen zaintza-kate batekin bat etor daiteke.

Erakunde azpi-gordailuzainak aukeratzeko, LABORAL KUTXAK honako betekizun hauek izaten ditu kontuan:

- Balore-merkatuan izen ona, esperientzia eta kaudimena dituzten erakundeak izatea.
- Aukeratutako erakundeek balore-merkatuan indarrean dagoen legeria eta jardunbide egokiak zorrotz betetzea.
- Euren egoitza soziala finantza-balore eta -tresnen edukitza eta zaintzaren alorrean erregelamentazioa eta ikuskapena daukaten herrialdeetan izatea.
- Erreferentziak merkatuetan zaintza-bolumen handiak edukitzea.

2º) LABORAL KUTXAK ahalmena du hirugarren erakundeei TITULARRAREN izenean irekitako kontu indibidualizatueta finantza-balore eta finantza-tresnen gordailutzea eta administrazioa egin dezaten eskatzeko. Kasu horretan, LABORAL KUTXA TITULARRAREN aurrean baloreen zaintzaren erantzule izango da, balore horiek bere kontuetan gordailututa daudenean bezala, eta alde aurretik Erakunde Azpi-gordailuzainaren kreditu-mailaren eta garrantziaren berri emango du, baita erakunde hori aldatu izanaren berri ere, hala badagokio. Merkatu espainiarretan kontu indibidualizatueta eragiketak egiten direnean bakarrik egin ahal izango dira eragiketak atzerriko merkatuetako kontu indibidualizatueta.

3º) Atzerriko erregistro-erakundeek LABORAL KUTXAREN edo beste hirugarren erakunde baten izenean irekitako kontu globalak (omnibus) erabiltzea exijitu dezakete. Kasu horietan, TITULARRAK ahalmena ematen dio LABORAL KUTXARI aipatu kontu horiek irekitzeko, eta TITULARRAK kontu globaletan gordailututako baloreekin aribidean dituen eragiketak eta finantza-balore eta -tresnen posizioa une oro eta berehala ezagutzeko aukera emango dioten barne-erregistroak edukiko ditu une oro LABORAL KUTXAK.

4º) Azpi-gordailuzainaren kontu globaletan edo, hainbat kasutan, zaintza-kateko beste erakunde batzuetan ezaugarri horiek dituzten baloreak erregistratuta edukitzeak, ekar dezake kontu globala dagoen erakundea Europar Batasuneko kidea den Estatu bateko ordenamendu juridikoari lotuta ez egotea, eta ondorioz, TITULARRAREN balore negoziagarrien gaineko eskubideak, jabetzaren eta kaudimengabeziaren alorrean, eta Europar Batasuneko kidea den Estatu bateko legeriari lotuta egonez gero izango litzuzkeen eskubideak desberdinak izan daitezke.

Atzerriko merkatuetan eragiketak egiteak, beraz, arrisku erantsiak ditu, izan ere, ezohiko kasuetan salbu, baloreen erregistroak kontuaren titularrari ez baitio ematen erregistratuta dauden balore eta tresnen gaineko jabetza-eskubidea, omnibus kontuaren titularraren aldeko kreditu-eskubide bat baizik, eta beraz, LABORAL KUTXAKO balore-kontuaren TITULARRA ordenamendu juridiko espainiarrekin alderatuta erabat desberdina den erregimen juridikoa duen kreditu-eskubide baten zeharkako titularrak besterik ez da. Horrela, honako arrisku hauek gaineratzen dira:

i) Lege-arlokoak: horien artean azpimarratzekoak dira TITULARRAREN eskubideei aplikatu beharreko araudia identifikatzerakoan gatazka sortzeko dagoen arriskua, eta bitartekariaren batek egin ditzakeen iruzurrezko jardunak.

ii) Eragiketa-arlokoak: erregistro-erakundeen katean bitartekari bat baino gehiago egotetik eratortzen diren arriskuak.

iii) Zaintza-arlokoak: finantza-baloreak edo -tresnak TITULARRAREN izenean ez daudenez gero, baloreen berreskuraketa edo erabilera gauzatzeko dagozkion bitartekariak kontua estaltzeko titulu nahikoak eduki beharko ditu.

5º) Dagokion agindua jaulkitzen den unean LABORAL KUTXAK honako informazio hau emango du:

- Erregistro-kontua atzerriko zein erakundetan eramaten den.
- Erakunde horri dagokion herrialdea.
- Entitatearen ratinga.
- Kontuaren titularrak erakunde horretan, titularrak azpi-gordailuzain bat denean eta ez LABORAL KUTXA.
- Azpi-gordailuzainaren ratinga.
- Azpi-gordailuzainari dagokion herrialdea.
- Kontuan idatzitako baloreak edo tresnak azpi-gordailuzainaren jabetzako baloreetatik bereizita badaude.

10. Baloreen eta finantza tresnen bermea

LABORAL KUTXA Kreditu Entitateen Gordailuak Bermatzeko Fondoan dago sartuta. Hona hemen Fondoaren helburuak:

- Balore Merkatuaren Legeak aurreikusitako gordailuak –kreditu-entitateetan diruz zein balore eta finantza-tresnez egindakoak– bermatzea, gordailugileak finkatutako gehienezko zenbatekoraino.
- Zailtasunak dituzten kreditu-entitateen kaudimena eta funtzionamendua indartzea.

Fondoaren bermeak inbertsiogilearen galera estaltzen du, egoera konkurtsalen, kaudimengabeziaren edo antzekoen ondorioz haren baloreak eta finantza-tresnak itzultzen ez bazaizkio. Bermeak ez du inolaz ere inbertsioaren balio-galerarik edo bestelako kreditu-arriskurik estaliko.

TITULARRAK Gordailuak Bermatzeko Fondoari buruzko informazio gehiago lor dezake web www.fgd.es webgunean.

LABORAL KUTXAK balore-kontuan gordailututako baloreak eta finantza-tresnak erabili ahal izango ditu bere kontura edo beste bezero baten kontura, edo tresna horien gainean baloreak finantzatzeko akordioak egin, baldin eta TITULARRAK horretarako berariazko baimena ematen badio. Hori eginez gero, kontratu honetan jasota geratuko da Eranskin gisa, eta, gutxienez, honako baldintza partikular hauek zehaztuko dira:

- LABORAL KUTXAREN betebeharrak eta erantzukizunak.
- Itzultzeko baldintzak eta dagozkion arriskuak.
- Emandako baimenak zenbateko epea duen.
- Zer balore eta finantza-tresna diren.
- LABORAL KUTXAK TITULARRARI baimenaren erabilerari buruzko informazioa emateko maiztasuna –gutxienez, sei hilean behin–.

11. Erantzukizunak

Baloreen TITULARRAK gordailuturiko baloreen jabetzaren legitimitatea defendatu egingo du LABORAL KUTXAREN eta hirugarrenen aurrean. LABORAL KUTXAK ez du horren balio edo legitimitateari buruzko inolako erantzukizunik.

LABORAL KUTXAK ez du erantzukizunik hartuko bere gain honako hauetan egiten dituen omisio edo hutsegiteengatik: dibidendu eta amortizazioen kobrantzan, tituluen truke edo harpidetzan, dibidendu pasiboen ordainketan edo beste edozein eragiketetan. Era berean, arazo teknikoak, komunikazioak edo aginduak betetzeko arazoak izan baditu, ez du bezeroaren aginduak berandu jakinarazi edo betetzeagatik sor daitezkeen kalteen erantzukizunik izango, ezta LABORAL KUTXARI egotzi ezin zaizkion bestelako ezinbesteko kasuetan ere.

Kontratu honetan onarturiko betebeharrak haustek eragindako kalte eta galeren erantzuleak aldeak izango dira.

LABORAL KUTXAREN erantzukizuna ez da gordailututako baloreetan gerta litekeen kalte edo galeretara iritsiko, baldin eta horien arrazoia hauetakoren bat bada: jaulkitzailearen egoera konkurtsala edo kaudimengabezia, zaintza-entitateen edo kontrapartida zentralerako entitateen kaudimengabezia edo funtzionamendu okerra edo TITULARRAK horiei lotuta egindako ez-betetzeak, kontu globalen erabilera, edo erregistro-sistema desberdinak, baldin eta horien izendapena eta erabilera kontratu honetan edo indarrean dagoen legedian aurreikusitakoaren arabera egiten bada edo izendapena titularrek egin edo onartu badute.

12. Komisioak eta gastuak

Baloreen gordailutzeak edo administrazioak baldintza partikularretan ezarritako komisioak sortuko ditu LABORAL KUTXAREN alde, denboraren poderioz aldatu ahal izango dira, eta kasu horretan TITULARRARI jakinaraziko zaio, zeinak edozein kasutan komisioen tarifa eskura izango duen LABORAL KUTXAREN webgunean edota bere bulegoetan.

Komisioaren goranzko aldaketa bat gertatzen denean, aldaketaren jakinarazpenetik kontatzen hasi eta BI hilabeteko epea emango da TITULARRAK onartzen duela adierazteko edota Kontratu honen suntsiarazpena erabakitzeke, eta komisio berria ez zaio aplikatuko. Bi hilabeteko epea igaro bada eta kontratua ez bada espresuki suntsiarazi, ulertuko da une horretatik aurrera komisioaren aplikazioa onartzen duela.

Hala eta guztiz ere, komisioaren aldaketa beheranzkoa izango balitz, era berean TITULARRARI jakinaraziko zaio, berehala aplikatzea bazter utzi gabe.

Kontratu honetan sartzen diren eragiketa eta zerbitzuak beste entitate batzuen bitartez bideratzen direnean, LABORAL KUTXAK parte-hartze horri dagozkion komisio eta gastuak titularri bidaltzen dion informazioan adieraziko ditu.

Emandako zerbitzuaren kalitatea handitzeko eta betiere TITULARRAREN interesik handiena lortzeko helburuz jardunda, LABORAL KUTXAK komisioak, ordainsariak edo diruzkoak ez diren etekinak jaso edo eman ahal izango ditu, kontratu honen xede diren zerbitzuak emateagatik. Zenbateko horiek jasotzen baditu, LABORAL KUTXAK horien berri emango dio TITULARRARI, hala zerbitzuak eman baino lehen nola ondoren Kostuen eta Gastuen Urteko Txostenean.

Webgunean, era berean, LABORAL KUTXAK dagokion kontrapartida zentralerako erakundearen arabera erregistroari, kontrapartida zentralari, konpentsazioari eta likidazioari dagokienez ematen dituen zerbitzuengatik sortzen diren prezioak eta komisioak kontsultatu ahal izango dira.

13. Aginduak eta baloreen erabilera

Titularrei lehentasunezko eskubideak ematen dizkieten edo horien adostasuna behar duten balore gordailu edo administratuen sozietate jaulkitzaileek iragarritako eragiketak, finantzarioak izan edo ez, idatziz jakinaraziko dira eta horien aginduak bete egingo dira, betiere, garaiz jasotzen badira eta, beharrezkoa bada, alde aurretik fondoak hornitu badira. Erantzunik jasotzen ez bada, titularrak LABORAL KUTXAK banku-ohitura eta praktiken arabera hartu duen erabakia onartzen duela ulertuko da.

Gordailuturiko baloreak erabiltzeko, beharrezkoa izango da horretarako ahalmena dutenen agindua, bosgarren eta seigarren baldintza orokorretan ezarritakoari jarraiki.

14. Atxikitako kontua

Kontratu honen ondorioz egin beharreko ordainketa eta zordunketa guztiak baldintza partikularretan adierazten den kontu atxikian egingo dira. LABORAL KUTXA ez dago behartuta titularraren aginduak betetzera, baldin eta aipaturiko kontuan agindu horiei erantzuteko adina fondorik ez badago. LABORAL KUTXAK bidalitako laburpen eta likidazioei TITULARRAK jasotzen dituen egunetik hamabost eguneko epean inolako eragozpenik jartzen ez badie, horiekin ados dagoela ulertuko da.

Lotutako kontua, gozameduna dagoen kasuan, kontratu honen baldintza partikularretan adierazitakoa edo, hala badagokio, gozamina jakinarazten dutenean adierazten dutena izango da. Kontu horiek nahitaz LABORAL KUTXAN irekita egon beharko dute, eta gozamedunek ez dute ordainketak beste erakunde batzuetan helbideratzeko ahalmenik izango.

15. Konpentsazioa eta atzera egitea

Titularrak LABORAL KUTXARI ahalmen ezetztaezina ematen dio honako eragiketa hauek egin ditzan:

- Kontratu honetatik edo indarrean dagoen legeriatik sortzen diren mugaeguneraturiko obligazioei erantzuteko, baita alde aurretik mugaeguneratzen direnei ere, zordunak LABORAL KUTXAN dituen eskudiruen eta baloreen gordailuak, finantza-aktiboak eta kredituak erabiltzekoa.
- Titularraren izeneko gordailu batean behar ez zen ordainketaren bat egin denean, eragiketa hori indargabetzekoa.
- Bukaera onari baldintzatuta egindako ordainketen zenbatekoa atxikitzekoa, gordailuturiko baloreen ordainketa efektiboa egin arte.

16. Helbidea eta jakinarazpenak

Titularraren helbide bakarra baldintza partikularretan jasotzen dena izango da eragin guztietarako, nahiz eta titulartasuna hainbatena izan.

Helbidea aldatuz gero, idatziz jakinarazi beharko dio bezeroak LABORAL KUTXARI.

Lege edo kontratuaren arabera egin beharreko komunikazio eta jakinarazpenak, komunikazio modu zehatz bat ezarrita dagoenean izan ezik, LABORAL KUTXAK ondorengo modu hauetan egin ahal izango ditu:

- Baldintza partikularretan adierazi den titularraren helbidera bidalita.
- Dagokion sukurtsalean entregatuta, titularrak hala eskatzen duenean.
- Baliabide telematikoen bidez bezeroak emandako telefonora edo helbide elektronikora bidalita.
- Sukurtsaletako iragarki-taulan jarrita.

LABORAL KUTXARI egin beharreko komunikazioak baldintza partikularretan adierazi den bulegora edo kontratu honen orri-oinen adierazitako LABORAL KUTXAREN helbidera bideratu beharko dira, eta gaztelaniaz nahiz euskaraz egin daitezke.

17. Titularren heriotza

TITULARRA hilez gero, oinordekoak eta, hala balegokie, baloreak eta finantza-tresnak zaintzeko kontratu honen gainerako titularrak behartuta daude LABORAL KUTXARI heriotzaren berri ematera.

Heriotza gertatzen denetik LABORAL KUTXARI horren berri ematen zaion arte egindako aginduak agindu-emaileen erantzukizun eskusibopean betearaziko dira.

18. Jokabide arauak

LABORAL KUTXAK Balore Merkatuaren Legean eta xedapen osagarrietan edo horien ordezkotako arauetan aurreikusten diren jokabide-arauak eta informazio-betekizunak bete behar ditu nahitaz.

TITULARRAK berresten du kontratu hau sinatu aurretik jaso duela LABORAL KUTXARI eta erakundeak ematen dituen inbertsio-zerbitzuei buruz eskatutako informazio orokorra, eta, bereziki, bezeroen sailkapenari, interes-gatazkei, aginduen betearazpen eta gestioari, pizgarriei, aktiboen babesari eta bezeroekiko komunikazio eta elkarrizketen erregistroari dagokienez indarrean dauzkan politikei buruzko laburpena.

Kontratu honen sinaduraren bitartez, TITULARRAK baimen orokorra ematen dio LABORAL KUTXAREN Aginduen Betearazpen eta Kudeaketa Politikari, eta politika hori bere webgunearen bitartez euskarri iraunkorrean denon eskura jartzeari, informazio nahikoa jaso izanik politika horri buruz, eta bezeroen aginduen betearazpenean ahalik eta emaitzarik onena sistematikoki lortzeko betebeharrak betetzeko hartutako arrazoizko neurriei buruz; adierazi du LABORAL KUTXAK jakinarazi dizkiola agindu bakoitzari lotuta dagoen tresna motarako lehenetsunez erabiltzen dituen betearazpen-zentroak eta bitartekariak, eta ohartarazi diote LABORAL KUTXAK TITULARRAREN jarraibide espezifikoren bat onartzen badu jarraibide hori ez duela bertan behera utziko Aginduen Betearazpen eta Kudeaketa Politikaren aurka joan arren.

TITULARRAK LABORAL KUTXARI erakundearen Aginduen Betearazpen eta Kudeaketa Politika eskura jarri ondoren bidaltzen dion agindu orok hura onartzea dakar.

LABORAL KUTXAK, Aginduen Betearazpen eta Kudeaketa Politikan gertatzen den edozein aldaketa garrantzitsu TITULARRARI jakinarazteko konpromisoa hartzen du.

19. Elkarrizketa eta komunikazioen grabaketa eta/edo erregistroa

LABORAL KUTXAREN Bezeroekiko komunikazio eta Elkarrizketen Erregistro Politikan aurreikusitakoarekin bat etorritik, TITULARRARI jakinarazten zaio LABORAL KUTXAK eta bezeroek inbertsioen alorrean dauzkaten elkarrizketa telefoniko eta komunikazio elektronikoko grabatu eta/edo erregistra daitezkeela, aplikatzekoa den araudiak agintzen duenez, kontuan hartuta horien ondorioz MiFID finantza-tresnen (Inbertsio Funttsak, baloreak edo

Caja Laboral Popular Coop. de Crédito, J.M. Arizmendiarieta pas. z/g, 20.500 Arrasate. Gipuzkoako Merkataritza Erregistroa, 2253 liburukia, 0 liburua, 65 orria, SS-31616 orrialdean. IFZ: F-75076935. Espainiako Bankuaren Erakundearen Erregistro Ofizialean dago erregistratua, 3035 zenbakiarekin, eta Espainiako Bankuak (Alcalá 48 – 28014 Madrid/España- www.bde.es) eta Espainiako Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak (Paseo de la Castellana, 19-28046 Madrid/España www.cnmv.es) ikuskatzen dute. Azken erakunde hori da, bereziki, kontratu honen xedeari lotuta kutxa ikuskatzen duen agintaritza..

deribatua) gaineko eragiketak egiten direla edo egin daitezkeela. Grabaketa eta/edo erregistro horiek egingo dira, bereziki, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak edo eskumeneke beste edozein erakundek egiaztatze aukera izan dezaten eragiketa horiekin lotutako zerbitzuei aplikatzekoak diren betebeharrak bete egiten direla, eta froga gisa ere erabil daitezke edozein prozedura judicial edo estrajudizialan, gutxienez 5 urtean gordeko direlarik, non eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak 7 urtera luzatzeko eskaera egiten ez duen.

Araudiak aurreikusten duenez, jakinarazpen hori behin bakarrik egin daiteke, edozein inbertsio-zerbitzu eman baino lehen, grabatzen den komunikazio bakoitzean inolako ohartarazpenik bildu beharrik gabe.

Kontratu hau sinatuz TITULARRAK onartzen du grabaketa edo erregistro horien jakinaren ganean geratzen dela.

20. Bezeroaren arreta zerbitzua

LABORAL KUTXAK Bezeroaren arreta Zerbitzua du. Hona hemen helbidea: José María Arizmendiarieta pasealekua, zk./g., 20500 Arrasate (Gipuzkoa). Organo hori Bezeroaren Defendatzailearen baliokidea da eta bezeroek bertara bidal ditzakete erreklamazioak, idatziz. Nahitazkoa da organo horretara jotzea Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalen erreklamazioa aurkeztu baino lehen.

Zerbitzu honek erreklamazioa ezesten badu, erreklamazioa ebatzpenarekin ez bada pozik geratzen edo LABORAL KUTXAREN webgunean eskura dagoen Bezeroaren Arretarako Zerbitzuko Erregelamenduan ezarritako epean ez bada ebatzpenik ematen, erreklamazioak Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalen Inbertitzailearen Arreta Bulegoan aurkeztu ahal izango du zuzenean (Edison kalea, 4. zk., 28006 Madril).

TITULARRAK eragiketen erregistro, kontrapartida, konpentsazio eta/edo likidazio zerbitzuari dagokionez LABORAL KUTXA edo BME Clearing sozietatearen aurrean kexa edo errelamazioen bat egin nahi badu, edozein ekintza administratibo, arbitral edo judicial egin aurretik kontrapartida zentralako eraundera jo ahal izango du idazki bidez.

21. Datu pertsonalen babesa eta tratamendua

Datuak babesteari buruzko oinarritzko informazioa

Datuak babesteari buruzko oinarritzko informazioa	
Tratamenduaren erantzulea	Laboral Kutxa Jose Maria Arizmendiarieta pasealekua zk.g. -20500 Arrasate (Gipuzkoa), Datuen Babeserako Delegatuarekin harremanetan jar zaitezke helbide honetan: protecciondatos@laboralkutxa.com
Tratamenduen helburu nagusiak	<p>Kontratu-harremanaren egikaritzean oinarrituta</p> <ul style="list-style-type: none"> Bezeroaren alta ebaluatu eta izapidetzea, kontratazioak gestionatzea eta kontratatutako produktuak eta zerbitzuak administratzea. <p>Lege-betebehar batean oinarrituta</p> <ul style="list-style-type: none"> Bidezko diren gestioak eta egiaztapenak egitea kapitalen zuzitzea eta iruzurra prebenitzearen alorreko betebeharrak betetzeko, baita beste edozein lege aplikagarri betetzeko ere. Datuak komunikatzea agintari publikoei, erregulatzaileei edota gobernu- edo jurisdikzio-organoei, araudiak hala exijitzen duenean. <p>Laboral Kutxaren interes legitimoan oinarrituta</p> <ul style="list-style-type: none"> Finantzaketa-eskaera bat dagoenean, kaudimen-ahalmena eta kaudimen-egoera aztertzea CIRBEn ondare- eta kreditu-kaudimeneko fitxategietan kontsultatuz. Ondare- eta kreditu-kaudimeneko fitxategi komunei datuak lagatzea legez aurreikusitako kasuetan. Kaudimena eta profil komertziala aztertzea barne-datuetan oinarrituz, aurrez emandako kredituei buruzko komunikazioak bidaltzeko. Kontratatutako produktu eta/edo zerbitzuei buruzko gogobetetze-inkestak egitea. Datuak tratatzea eta/edo hirugarrenei komunikatzea, Laboral Kutxa Taldekoak izan nahiz ez, iruzurra prebenitu, ikertu eta/edo aurkitzeko. Datuak Laboral Kutxaren enpresa laguntzaileei lagatzea, Laboral Kutxak enpresa horien produktuak eta/edo zerbitzuak merkaturatzen dituzten eta horiek kontratatzen badira. Ahotsa eta/edo irudia grabatzea zerbitzuaren kalitateari eusteko eta grabazioak proba gisa erabiltzeko epaiketan eta epaiketarik kanpo, beharrezkoa izanez gero. Komenigarritasun eta Egokitasun Testak egitea eta emaitzako informazioa gordetzea inbertsio-erabakiak har ditzakezula eta horien arriskuak ulertzen dituzula egiaztatze, eta, hala badagokio, zure inbertsio-helburuak eta zure finantza-egoera egiaztatze aholkularitza-zerbitzuen prestazioari dagokionez. <p>Interes legitimoan edo baimen esplizituan oinarrituz, datuen jatorriaren eta/edo datu horiek erabiltzeko aurreikuspen arrazoigarriaren arabera</p> <ul style="list-style-type: none"> Laboral Kutxak, Laboral Kutxa Taldeko enpresek edo Laboral Kutxaren enpresa laguntzaile edo partaidetuek merkaturatzen dituzten produktu eta zerbitzuei buruzko eskaintza komertzialak bideratzea edozein bitarteko erabiliz. Profilaren eta kontsumo-ohituren ebaluazioak egitea, interesgarriak izan daitezkeen produktu eta zerbitzuen eskaintza pertsonalizatzeko.
Datuen hartzaileak	<ul style="list-style-type: none"> Agintari publikoak, erregulatzaileak edota gobernu- edo jurisdikzio-organok, legezko betebeharrak betetzeko beharrezkoa denean. Laboral Kutxa Taldeko sozietateak edo Laboral Kutxaren enpresa laguntzaile eta/edo partaidetuek, iruzurra prebenitu, ikertu eta/edo aurkitzeko eta interesgarriak izan daitezkeen produktu eta zerbitzuak eskaintzeko. Espainiako Bankuko Arriskuaren Informazio Zentrala (CIRBE) eta Experian Bureau de Crédito S.A. edota ASNEF-EQUIFAX, Servicios de Información sobre Solvencia y Crédito, S.L. ondare- eta kreditu-kaudimenari buruzko fitxategiak, baldin eta ordainketa, kreditu edo finantzaketaren diru-itzultzea hitzartutako baldintzetan egiten ez bada. Laboral Kutxari zerbitzuak hornitzen dizkieten enpresak, eskusiboki zerbitzu horiek emateko.
Datuak babesteko	Datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, ezabatze, tratamendua mugatzeko edo datuen aurka egiteko eta

Caja Laboral Popular Coop. de Crédito, J.M. Arizmendiarieta pas. z/g, 20.500 Arrasate. Gipuzkoako Merkataritza Erregistroa, 2253 liburukia, 0 liburua, 65 orria, SS-31616 orrialdean. IFZ: F-75076935. Espainiako Bankuaren Erakundearen Erregistro Ofizialean dago erregistratua, 3035 zenbakiarekin, eta Espainiako Bankuak (Alcalá 48 - 28014 Madrid/España- www.bde.es) eta Espainiako Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak (Paseo de la Castellana, 19-28046 Madrid/España www.cnmv.es) ikuskatzen dute. Azken erakunde hori da, bereziki, kontratu honen xedeari lotuta kutxa ikuskatzen duen agintaritza..

eskubideak	eramangarritasun-eskubideak balia daitezke, baita erabaki automatizatuen xede ez izateko eskubidea ere, "Informazio Gehigarrian" xehatzen den bezala.
Informazio gehigarria	Laboral Kutxaren Bezeroentzako Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko Politikari buruzko informazio gehigarri xehatua kontsulta daiteke honako webgune honetan: www.laboralkutxa.com

Era berean, esanbidez jakinarazten da LABORAL KUTXAKO bezeroak izan gabe kontratu honetan ordezkari, ahalordedun edo antzeko figura gisa esku hartzen duten pertsona fisikoen datu pertsonalak kontratutik eratorzen den harremana gestionatzeko helburuarekin tratatuko direla esklusiboki.

22. Araudi aplikagarria

Kontratu honetan esanbidez arautzen ez den guztiari eta, batez ere, parte-hartzaileek balore-merkatuan izan beharreko jokabide-arauei dagokienez, Balore Merkatuaren esanbidezko legedia eta hori garatzen duen araudia aplikatuko dira, baita 1/2007 Errege Dekretua, azaroaren 16koa, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorraren testu bategina onartzen duena, kapitalak zuritzeari buruzko arauak, kontsumitzaileentzako finantza-trenen urrutiko merkaturatzeari burukoak eta aplikagarri izan litezkeen gainerakoak ere.

BME Clearing sozietatearen bitartez egindako eragiketen erregistro, kontrapartida, konpentsazio eta likidazio zerbitzuari dagokionez, kontrapartida zentralerako erakunde horrek onartutako Erregelamendua, Baldintza Orokorrak, Zirkularrak eta Jarraibideak aplikatuko dira. LABORAL KUTXAren webgunean araudi hori eskura daiteke, zeina TITULARRAK kontratu hau sinatzerakoan irakurri egin duela adierazten duen.

Parte-hartzaileen sinadurak

Kontratu honen baldintza orokorretan eta partikularretan hitzartutakoa jasota geratzeko eta galdagarria izateko, eta baldintza orokorrak onartu eta ezagutzen direla eta tarifei buruzko informazio-liburuxka jaso egin dela frogatzeko, sinatu dute kontratu hau adierazitako tokian eta datan. Bezeroak kontratuaren ale bat jaso du, indarrean dauden arauei jarraiki.

Herria eta eguna:

Laboral Kutxa
Ahalordez
Ibon Urgoiti Urioste
Negozioa Garatzeko Areako zuzendaria



Arrasaten 2018ko abenduaren 13an 1.002 protokolo-zenbakiarekin Antonio Román de la Cuesta Gáldiz notarioaren aurrean emandako ahalmenaren arabera.